



# TOMAS GARBIZU LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA **2020-21 IKASTURTEA: MUSIKA-TRESNA AUKERATZEA**

Matrikula 2020ko maiatzaren 04tik 15era egin ahal izango da bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 16:30etik 20:00etara). Egun horien artean matrikula entregatu beharko da plaza erreserbatzeko (Ikasleak aukeratu nahi dituen musika tresnak zehaztea ez da beharrezkoa).

Behin ikasle ofizialen matrikulazio datuak ezagututa (maiatzaren 18), ohiko komunikazio bideetatik informatuko dugu musika-tresnaren eskaintza zehatza eta maiatzak 22ra bitarteko epea izango dute behean dagoen eranskina beteta entregatzeko. Instrumentuen eskaera lehentasunaren arabera zerrendatu. ([Gutxienez 2 instrumentu](#))

Hauek dira musika eskolak eskaintzen dituen musika-tresnak: **klarinetea, saxofoia, zeharkako txirula, tronpeta, pianoa, biolina, biola, biolontxelo, gitarra, txistua, trikitixa, akordeoia eta perkusioa**. Ikasturtean zehar, tailerrak antolatuko dira (22 saio), non musika-tresnak eskainiko diren: txalaparta, panderoa, dultzaina, alboka, tronboia, bonbardinoa eta tuba.

Musika-tresna aukeratzeko inprimakia jarraian erantsi duguna da eta matrikula-orriarekin batera entregatuko da. Musika-tresnak lehentasun-ordenaren arabera aukeratu behar dira.

Plazak korrelatiboki esleituko dira eta, horretarako, agiri honen behealdean ikasleak adierazi duen espezialitate-ordena aplikatuko zaio kreditu-kopuruaren arabera sortutako zerrendari, hutsik dauden plaza guztiak bete arte.

Musika-tresna guztietan plaza mugatuak daudenez, komenigarria da **hainbat musika-tresnarekiko lehentasuna adieraztea. Musika-tresna horietako batean plaza lortuz gero, EZIN izango zaio uko egin; uko eginez gero, ikaslea azkena izatera igaroko da <musika-tresna aukeratzea> zerrendan.** Kreditu berdinketa badago lehentasunak zozketa bidez argituko dira.

Matrikula-epea itxi eta plazak barematzeko eta esleitzeko prozesua amaitu ondoren, ikasle bakoitzari esleitutako musika-tresnaren berri ematen duen zerrenda jarriko da Musika Eskolako iragarki-taulan. (**Ekainaren 1ean**).

Musika-tresnak esleitu ondoren bajaren bat egonez gero, plaza hutsak betetzeko, kontuan hartuko dira ikasleak <kredituak> zerrendan duen ordena korrelatiboa eta <musika-tresna aukeratzea> zerrendan adierazi dituen lehentasunak.

Plazak esleitu ondoren ikasleari jakinarazten bazaio ez duela eskatutako musika-tresna bakar batean ere plazarik lortu, Musika Eskolak aukera hauek emango dizkio:

1. Plazak dauden beste musika-tresna batekin has daiteke (kreditu 1) edo, bertako musika-tresnei buruzko tailerren batean has daiteke (0,5 kreditu). Hori eginez gero, itxaron zerrendan egongo litzateke, kredituak lortuko lituzke eta aukera izango luke 2020-21 ikasturtean eskatutako lehentasunezko musika-tresnetako bat aukeratzeko 2021-22 ikasturtean.
2. Musika-tresna alde batera utz dezake eta gainerako irakasgai osagarriak egin ditzake hurrengo ikasturtean. Hori eginez gero, itxaron zerrendan egongo litzateke, 2021-22 ikasturtean lehen aldiz musika-tresna aukeratzeko duten ikasleen baldintza berberetan. Horrelakoetan, kreditu-kopurua musika-tresna aukeratu **EZ** zueneko berbera izango da.
3. Musika-tresnan baja eman eta beste musika-tresna hartu nahi duten duen ikasleak. Ikasle ofizial bezala egon beharko du 2 ikasturtez, musika-tresnaren itxarote zerrendan. Denbora tarte honen ondoren, musika-tresnaren aukeraketa prozesuan musika-tresna hori aukeratu nahi duten lehenengo aldiz parte hartzen duten ikasleen baldintza berdinetan (4 kreditu) parte hartuko du.

Oharra: Edozein informazio osagarri nahi izanez gero, Matrikulazioa Araudia kontsultatu.

## MUSIKA-TRESNA AUKERATZEA

**IKASLEAREN IZENA:** .....

**PLAZA IZAN NAHI DUZUN MUSIKA-TRESNAK ADIERAZI ITZAZU ([Gutxienez 2 instrumentu](#)):**

- |         |         |
|---------|---------|
| 1. .... | 3. .... |
| 2. .... | 4. .... |

- **Matrikula-inprimakiarekin batera entregatu ezazu.**

**Musika tresnen egutegiak\* hauek izango dira:** (\*Eskola Kontseiluko Presidentea gaitzen da, egun hauen aldaketa baimentzeko)

Biolina\*-Flauta-Tronpeta (**Astelehena**)//Perkusioa-Pianoa\* (**Asteazkena**) // Trikitixa\*, Biolontxelo (**Osteguna**)// Saxofoia Akordeoia, Kitarra, Klarinetea, (**Ostirala**) // Txistu\*